

Nafarroako Esaera Zaharrak. Igantzi.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Igantzi.

- 1856 *Agotiak Jesus salatu, ijituak altxatu (izkutatu).*
Baztan-go esaera omen da.
- 1857 *Asnasa aiñe gezur.*
- 1858 *Andria nongo, aidiak ango.*
- 1859 *Aritzak anitz adar ekartzen.*
Gizonak ere anitz asmaketa egiten.
- 1860 *Azaria baño lotsagabe(a)go izan.*
- 1861 *A zoroak! anitz erranikan ere, gelditzen da zer erran.*
Mendiburuk bere Otoitz-gaietan dakar esaera au.
- 1862 *Denboran, denborako gisa.*
- 1863 *Denetarako bazeukek orrek maratilla.*
Erantzuna, aitzekia.
- 1864 *Ez du izenak egiten izana.*
Askotan izen ederra, izana itsusi zakarra.
- 1865 *Yosi edo urratu, a(g)udo egiñen du.*
Zirt edo zart, luzapenik gabe.
- 1866 *Ondotik ondokoak.*
Gero gerokoak.
- 1867 *Txapelik aundienak ez du buru utsik betetzen.*
Zentzugabea beti buru uts.
- 1868 *Uso zuria aidean: ederrago maiean.*